

GOI-PALEOLITOAREN HASIERAKO FASEAK

Alvaro Arrizabalaga

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren Bekarioa

Goi-Paleolitoan, hasierako aldiak luzeen eta konplikatuenak dira, zalantzarik gabe. Alde batetik, bere sailkapen kronologiko-kultural eta paleoingurukoa behin-betikoz finkatzeke dago, oraindik ere. Honez gain, oso aztarnategi gutxitan aurkitzen dugu jatorrizko ereduarekin ondo identifikaturik.

Atal honetan gaira hurbiltzen eta egunekatzen saiatuko gara. Euskal Herrian gaur egun ezagutzen ditugun aztarnategi garrantzitsuenak (Isturitz, Gatzarria, Amalda, Lezetxiki, Labeko Koba, Santimamiñe, etab.) deskribatuko ditugu. Guztien datuak bildu ostean mailaz maila sailkatuko ditugu, Euskal Herrirako baliozkoa izan daitekeen sistema kronologiko-kulturala osatu nahian. Taula hau hutsunerik gabe osatua izango bada, ingurugiroari dagozkion datu guztiak sartuko ditugu bertan. Prozedura luze hau bukatu eta gero, bakarrik izango zaigu posible alboko arloetako seriazioekin (Kantauri, Akitania edota Dordogne aldeak) parekatzea.

Sarrera

Beste edozein gaitan sartu baino lehen, komenigarria iruditu zaigu zenbait argipen nagusi mahai gainean jartzea.

Thomsen-en *Ipartarren Aintzinateko Gidaliburua* (1836), Historiaurre zientifikoaren jaiotze-data moduan onartzen badugu ere, gaur egun erabiltzen dugun sistematizazio kronologiko-kulturala ez da gauzatuko 1933 arte. Bide luze honetan, Lartet, Mortillet, Breuil eta Peyrony-k, beste batzuren artean, jo zituzten aurre-rakada handienak. Data honetatik aurrera, oraindik ere, taula kronologiko hori zehazten jarraituko da, bereziki artikulo honi dagokion aldian, Goi-Paleolitoaren hasiera. Azken urteotan, karbono 14 metodoaren bidez lorturiko datazioak nagusitu direnetik, gure inguruko Paleolito garaiko bilakaera kulturala, behin betikoz finkatuz doa. Bilakabide honetan aipatuko ditugu bi ezaugarri : alde batetik, prozesu hau irekita dagoela, indusketa berri bakoitzak datu gehiago eskaintzen bait digu; bestalde, eskema kronologikoa eta eremu geografikoaren artean dagoen lotura (orain arte, sailkapen orokorrenak Frantziako hegomendebaldean kokaturiko aztarnategiei buruz egin direlako). Batzutan, arlo honetatik oso urruti dauden kulturetarako ere egokitu ohi da sekuentzia kultural hori (adibidez, Ertekialdean), nahiz eta bertako baldintza naturalak ezberdin xamarak izan. Zorionez, Euskal Herrian gertu gaude eredu honetatik, gutxienez

geografikoki. Kulturari dagokionez, moldaketa batzu egin beharko dira, ikusiko denez.

Gaur eguneko ahalegina da, alor kultural ezberdinetan, seriazio kronologiko bat osatzea. Hau lortu nahian, eremu bakoitzean (adibidez, Euskal Herrian) mota eta kronologia guztietako aztarnategiak industu beharko dira. Honez gain, indusketa hauei probetxu guztia atera ahal izateko, funtsezkoa izango da haien analisiak eta datazioak egiteko laginak aztertzea. Kronologia eta Estratigrafia berpizteko oinarritzotzat jotzen dugu izan duten zentzu tipologikoa gaintzea, industutako aztarnategiei klima eta kronologi egituraketa bat emanez. Baldintza batzu bete beharko dira lan honetan: aztarnategi zaharretatik ateratako datuak birraztertzea; aztarnategi berrietan, behar den bezala industea (aurreko kriterioak mantenduz); arlo berean mota eta kronologia guztietako aztarnategiak izatea (taula teoriko batetan hutsuneak egon ez daitezen).

Euskal Herriaren kasuan, bereziki aipagarri da J. M. Barandiaranen lana, Aranzadi eta Eguren-ekin gerra aurretik, bai eta gerra amaitu ostean beste laguntzaile batzurekin egindakoa ere. Bere saioak mende honetan euskal Arkeologian egin diren iharduerei, iraupena eman die. Berak hezi zituen azken hamarkadetan gure inguruan ekin duten ikertzaileak.

Aurreko baldintzetara itzuliz gero, orokorki esan daiteke Euskal Herriko aztarnategiak ondo ikertuak daudela.

Halere, hutsune pilo bat dago betetzeko. Gure herriaren historiaurrean, gutti esan dezakegu, edo ezer ez, garrantzizko garai luze batzuz (adibidez, Behe-Paleolitoaz).

Gainera, hau konplikatzen da Euskal Herriko zatiketa administratiboak dakartzan betiko arazoekin: material arkeologiko, argitarapen eta arkeologoentzako dinamika ezberdinak. Hau dena dela eta, Euskal Herriaren Prehistoriari buruz behin betiko sintesia idaztea ezinezkoa litzaiguke. Askoz ere apalagoak izango gara, gai honi begirada arin bat emanez, seguruenez gauza berririk esan gabe, baina –hori bai–, geure hizkuntzaz.

Goi-paleolitoaren bereizpenerako datuak

Zientziaren arlo guztietan gertatzen den moduan, Historiaurrean ere finkatu da, "ohituraz", zenbait zatiketa nagusi. Gure lehenengo lana, beraz, zatiketa horiek erizpide kritikoekin eztabaidatzea izango da, euren benetako balioa argitzeko.

"Goi-Paleolitoa" adierazpenean, bi hitz aurkitzen ditugu: **Paleolitos** grekoz "Aintzin-harri", landuaren aroa harri leunduarenetik bereizteko. Bestalde "Goi" horrekin (Historiaurrean, Historia Orokorrean ez bezala –adibidez Goi- edo Behe-Ertaroa–, zentzu estratigrafikoa ematen zaio, eta horrela goian dagoena, berriena da) Erdi-Paleolitotik aldentzen da kultura-multzo bat

(Perigord, Aurignac, Solutre edo Magdalen aldiak). Zatiketa hau, orokorki hartuta onargarria bada ere, ñabartu beharra dugu, iraupen elementuak ere badaudelako:

a) Erizpide klasiko bat Antropologia Fisikoak eman duena izan da. Orain dela gutxi arte, Erdiko-Paleolitoa eta **Homo sapiens fossilis** (Neanderthal) eta Goi-Paleolitoa eta **Homo sapiens sapiens** (Cro-Magnon) paralelizatu dira. Bi giza tipoen artean ez zen loturarik ikusten. Azken boladan garrantzizko aldaketak egon dira eredu honetan Neanderthal bat aurkitu bait da Goi-Paleolitoko maila batetan (Saint-Césaire); bestalde, badoaz azaltzen giza tipo hauen bitartekoak, eboluzio bat erakutsiz.

b) Beste erizpide bat tekniko izan da. Garai hauetako bi tresna-mota heldu zaizkigu: litikoa eta hezurrezkoa. Goi-Paleolitoan zehar bien garapena oso jaramonekoa bada ere, lanabes gehienen sustraiak, aurreko garaietan daude. Honez gain, Goi-Paleolitoko kultura guztietan kontserbatuko dira (proportzio aldakorretan) lehendik zetozen karraskailuak edota horztunak. Aldaketa kualitatiboak, batzutan progresiboki inposatzen dira (adibidez ijelkien erabilpenaren hedakuntza) edo Goi-Paleolitoaren momentu aurreratu batetan sortzen dira (arrankazien asmaketa). Erdi-Paleolitotik Goi-Paleolitorako igaroaldian, asmakuntza zehatz batzuz baztertzen baditugu (oinalde pitzatudun azagaia edo Gravette-punta, adibidez), aldaketa kuantitatiboa da, kualitatiboa baino gehiago. Ijelki eta ijelkitxoaren erabilera

progresiboa kriterio ekonomikoengatik inposatzen da: lehengaiaren ekonomia eta hau dela eta, lanaren ekonomia (ez dago suharriaren bila hain maiz joan beharrik, eta lana, beraz, erraztu egiten da). Gainera, tresna berriak nahiz eta txikiagoak izan, eraginkorrak dira. Tresneriaren ijelkitze- eta txikitze-prozesu honek, Leptolitizazio izena hartuko du.

d) Sarritan azpimarratu da Gizeriaren Arte, Goi-Paleolitoan hasten dela. Onartu egin dezakegu ideia hau, aurreko garaietako adierazpen artistikoak hezurretan grabatutako marrazkiak, besterik ez bait ziren. Baina Goi-Paleolitoan jaioa bada, ez da izan berarekin batera ez bait zen Goi-Perigord aldira arte azaldu. Askoz ere deigarriagoa litzateke Arte irudikorren amaieran gertatzen dena, hau bai Goi-Paleolitoarekin batera desagertzen delako.

e) Ekonomiari dagokionez, Erdi-Paleolitotik Goi-Paleolitara igaraldian ez dugu aldaketa bikainik nabaritu, ehiza, arrantza eta landareen uztatik bizitzen bait da gizaki Goi-Paleolitoarra. Suposa daiteke garai luze honetan zehar hauen teknikak bilakatuko zirela. Bizileku-motek, ardatz berberan jarraitzen dute, bai aire zabaleko kanpalekuak (horrelakoak, oso gutxi aurkitu ditugu) bai haitzulo edota harpetako ezarguneak.

f) Bestalde, hedapen geografikoari buruz, Moustier aldia (Erdi-Paleolitoa) izan zen, Historiaurrean, azken kultura

"unibertsala". Moustier aldia edo antz bikaina duten kulturak, izoztetatik kanpo geratzen den European, Afrikako iparraldean eta ia Asia osoan ezagutzen dira. Goi-Paleolitoarekin, logikoki, teknika berriekin batera eta tresnen aldakortasuna gehituz doan neurrian, halaberharrezko konbergentzi aukerak gutxitu egingo dira, eta joera, kultura lokaletaranzkoa izango da.

Kronologia

Arkeologi mailan bi motatako kronologiak erabiltzen dira: absolutua (maila baten aintzintasuna urteetan neurtzen duena) eta erlatiboa (beste antzeko maila edo aztarnategiekin parekatuz lortzen duguna).

Kronologia absolutua ezagutzeko, bide arruntena karbono 14ezko azterketa izaten da. Metodo honen posibilitateetan muga kronologikoak daude, baina normalean Goi-Paleolitoaren barneko datak emateko gai izaten da. Kasu honetan interesatzen zaigun garaiak, Goi-Paleolitoaren hasierak (edo Aurignac / Perigord aldiko "konplexua" k), K.a. 32.000 urtean dauka hasiera (Abri Pataud, Grotte du Renne, Les Cottés, Quina, etab.) eta amaiera, K.a. 18.000 urtean, gutti gorabehera (hainbat lekutan).

Kronologia hau onartuz gero, bere egokitzapen erlatiboak, azken izoztaro barruan (Würm), Hengelo (Würm II / III) epelaldiaren amaiera eta Würm IIIren zati nagusia inguratuko litzuke.

Laville-k (LAVILLE, H.,1975), bere Perigord-eko Paleolitoaren azterketa klimatiko-kronologikoan, Würm IIIren barnean hamalau aldi bereizten ditu (epelaldi nahiz hotzaldiak), bakoitza bere azpi-zatiketekin. Inguru horretan, lehenengo bederlatzi faseak Goi-Paleolitoaren hasieran bilakatzen dira. Zehazkiago, Perigord IX deitutakoa, Laugèrie-Hauten topatutako Aurignac aldiaren V. fasekoa litzateke, eta Perigord X. jadanik, ProtoSolutre aldia. Orokorki hartuta, esan daiteke Hengelo epelaldian klima atsegingarria nagusi izan zela, eta berriz, Würm III aldian, oso hotza. Baina Laville-ren ikerketan ikusten denez, garapena oso konplikatua izan zen, eta hau zehazteko bide bakarra aztarnategi berrien jalkiak ikertu eta euren artean harremanetan ipintzea da.

Zirkunstantzia honetatik bi ondorio jasoko ditugu: alde batetik, sailkapen klimatiko bat finkatzeko, inguruko aztarnategiak aztertu beharko direla, hau da, Laville-k Perigord-en egindako lana ez dela zeharo aplikagarria gure herrirako. Bestalde, egoera honek argitzen du gai honi buruzko topiko guztiak baliogabeak direla, Horrela, maiz esan da Würm izoztaroko habitatek ez zutela 400 m-ko altuera gaindituko, hotzarengatik. Bilakabide konplikatua honetan zehar, adibidez, adierazten da nola izan den posible garai "hotz" honetan Urbanan (900 metrotara) bizi izatea (seguruenez, hauetariko epelaldi motz ezberdinetan). Ikerketa sedimentologikoetan, gure inguruari dagokionean, ez dago Laville-renaren antzekorik. Baina

beste bi ezaugarri klimatikoei buruz, fauna eta landaretza hain zuzen, badaude Kantauri Aldeari dagozkion ikerketa orokorrak.

Faunari buruz, Altunak (ALTUNA, J. 1972) bere tesia aurkeztu zuenetik, honelako azterketak nagusitu dira, eta hau dela eta, eguneko bilduma nahiko gaurkotua dago. Lan orokor horretan, zenbait aldi klimatiko bereizten dira, Hengelotik aurrera:

-Hengelo epelaldia ikusten da Lezetxikiko Vb eta Va mailetan (Moustier aldia), eta Morin-go Moustier, Behe-Perigord eta Proto Aurignac aldiko mailetan.

-Lezetxikiko Va eta IVc, Otero-ko 8, Morin-go 9 (Proto Aurignac aldia eta Aurignac aldia I), Gatzarriako 3 (Aintzin Aurignac aldia) eta Isturitz-eko S.III eta A mailek (Aurignac aldi tipikoa) hozte berbera ezagutuko dute.

-Hau amaitu ostean, epelaldi bat ikusten da, baina ezin da bereiztu Frantzialdean Arcy ala Paudorf deitutakoa den. Lezetxikiko IIIa (Aurignac aldia) eta agian Isturitzeko S.II eta C (Aurignac aldia tipikoa) eta Aitzbitarte IVko V mailan aurkitutako aztarnak koka daitezke berotze nagusi honen barruan. Sar daitezke, halaber, Isturitzeko V eta A eta Otero-ko 7 eta 6 mailak.

-Arcy edota Paudorf epelaldiak pasatzen direnean, Würm IIIb fasean, giroa hoztu egingo da berriz ere, sakonki eta luzaroz. Ikertzaile gehienek onartzen dute garai honetan

Goi-Perigord aldia eta Aurignac aldiko azken faseak bilakatzen direla. Oso ongi ikusten da Isturitzen, IV, III eta F3 eta C mailetan. Baita Gatzarriako 5, Otero-ko 5 eta Morin-90 4 eta 5 mailako goiko partean ere.

Iriartek (IRIARTE, M.J., 1986) Würm izoztaroko aztarnategietan Kantauri aldean egindako Polen analisiak bildu eta aztertu zituen.

Zoritxarrez, Goi-Paleolitoaren hasierari dagozkion datuak eskas xamar dira, bakarrik El Pendo, El Otero eta Cueva Morín-en egin bait dira. Beste aztarnategi batetan, Ekainen, garai honetako mailak ez dira hartu kontuan. El Pendo-n egin zen analisisa oso pobrea da, maila bakoitzean lagin bakar bat aztertu bait zen. Bestalde, El Otero-ko analisisian klimaren aldaketak ez dira nabarmenak eta ondorioz ez du ematen berri handirik. Horrela, Morín-en egindako analisisa geratzen zaigu bakarrik, eta honen ondorioek ez dute bat ere oinarririk bertako Sedimentologian.

Leroi-Gourhan-en ustez (LEROI-GOURHAN, Arl., 1971) 10 maila (Behe-Perigord aldia), 12 maila (Moustier aldia) eta 9 eta 8 mailak (Proto Aurignac aldia) Hengelo-Les Cottés epelaldiaren barnean bilakatuko ziren; 7 maila eta 6 mailako hasiera (Aurignac aldia I), Arcy epelaldian; 5 mailako beheko aldea (Aurignac aldia II), Arcy eta Kesselt bitarteko hotzaldian; 5 mailako goiko aldea eta 4 maila (Gravette aldia) zehaztu gabe geratu dira.

Bestelako datuen faltarengatik, orain arte Frantziako aztarnategiekin konparatzeko joera izan da, Goi-Paleolitoaren hasiera Hengelo epelaldian kokatzea onartuz. Baina arazo honi irtenbide bat bilatzeko, analisi berriak egin beharko ditugu. Halere, gauza ziurra da garapen klimatikoa uste baino konplikatuagoa izan zela.

Bilakabide historiografikoa

Arkeologoi burukomin handienak eman dizkieten Goi-Paleolitoko faseak, hasierakoak izan dira. Esan dezakegu, bildur barik, behin betiko sistematizazio kronologikoa oraindik ere finkatzeko dagoela. Honez gain, bere barruko sailkapena oso aldakorra izan da, hurrengo orrialdetan ikusiko denez.

Goi-Paleolitoaren hasierako bereizpen kulturean lehenbiziko pausoa, Lartet-ek eman zuen. Aurignac-eko aztarnategian, 1860an hasiko da industen, eta berehala, 1861ean sailkapen kronologiko bat proposatuko du, ikuspegi paleontologikoan oinarrituz. Hau izango da, Haitzuloe-tako Hartz Handiaren Aroan, 1867an lehenengo aldiz, Mortillet-ek Aurignac-eko Zibilizazioa deituko duena. Laister aldatuko da egoera hau, eta berak, bere hurrengo sailkapenetan ahaztu egingo du Aurignac-eko Zibilizazioaren izatea.

Beste garai batzutarako gertatzen den moduan, Breuil izango da 1906ko Monaco-ko Historiaurre Kongresuan eztabaida hau berpiztuko duena.

"Aurignac-eko ereduko Aurreolutre aldiko aztarnategiak" izeneko komunikazio batetan, Rutot-ek asmatutako "Aurignac aldi"ko deitura sartuko du. Gainera, erizpide estratigrafiko baten bidez, Solutré, Pair-non-Pair, Ferrassie, Trilobite eta Brassempouy-ko aztarnategiak konparatuz, egiaztatuko du Aurignac aldiaren kokaera kronologiko eta nortasun teknikoa. 1912. urteko artikuluetan zehaztu zen fase honi buruzko Breuil-en eritzia:

-Aurignac aldiaren kokaera estratigrafikoa finkatzen du, inongo zalantzarik gabe, Le Moustier eta Solutre aldiaren artean ezarriz.

-Behe-Aurignac aldia Châtelperron eta Abri Audi aztarnategietan ezagutzen zen. Hauetan, Le Moustier aldiko lanabesak egotea eta bizkardun puntamota bat ziren ezaugarri nagusiak.

-Erdi-Aurignac aldiaren Aurignac aldiko tresna tipikoenek lortuko zuten bere kopuru altuena. Aipagarria zen adarrezko oinalde pitzatutun azagaien presentzia.

-Goi-Aurignac aldiaren bizkar zanpatutun puntak itzuliko ziren, bereziki La Gravette itxurakoak.

Nahiz eta sailkapen honekin jarraitu, Breuil-ek igarri zuen Behe- eta Goi-Aurignac aldiaren artean jarraikortasun tekniko bat zegoela, Erdikoa sarkin antzekoa izanez.

1907an ikertzaile gazte batek lagundu zion Breuil-i bere teoriak aurrera ateratzen. Hau Peyrony zen,

1933 eta 1936 artean orduko Aurignac aldiaren sekulako aldakuntzak sartuko dituen. Laugérie-Haute eta La Ferrassie industu ondoren, Breuil-en sistematizazioa berrartu eta moldaketa nabargarri batzu tartekatu zituen. Orokorki, Breuil-en Aurignac aldiaren barruan bi adar bereiztuko ditu:

-Ordurarteko Behe- eta Goi-Aurignac aldiak bilakabide berri batean sartzen ditu, Perigord aldia, zazpi azpizatuketarekin.

-Ordurarteko Erdi-Aurignac aldia izango da, beraz, benetako Aurignac aldia, eta bere barruan bost fase antzemango ditu.

-Nagusiki esanda, Perigord aldi berriko bereizkunde teknikoak hezur landuaren urritasuna eta suharrietako bizkar zanpatutun teknika izango lirateke. Aldiz, oraingo Aurignac aldiaren nortasuna hezur landuaren ugaritasunak eta "Aurignac aldiko ukiera"k gauzatuko lukete.

Zenbait urte beranduago, 1946an, Peyrony-k bere eskema berrikusiko du, aurkikuntza berriei egokitzeko. Perigord aldiaren, oraindik ere, bi talde bereiztuko dituzte kriterio eztabaigarriak erabiliz. Garai honetako sailkapenetan, nagusiki, tipologikeria gehiegi ikusten da. Aztarnategian maila bati kultura bat iratxekitzeko, tresna tipikoari (edo fosil gidariari) heltzen zioten. Eta erizpide tekniko-ebolutiboaren bidez kokatzen ziren hauek sailkapen kulturalean, batzutan oinarri estratigrafiko handirik gabe. Honi gehitu beharko diogu, geure

aldetik, eredu geografikoari buruz esandakoa. Faktore guzti hauek elkartzuz gero ikusiko dugu zertan geratuko den Peyrony-ren eskema, gure ingurura moldatua. Baina itzul gaitezen, momentuz, aurreko bidera.

Teoria hauen sortzetik, bibliografian, hiru joera jarraitu dira:

- Breuil-ena, Goi-Paleolitoaren hasiera osoan iraupen-elementuak denen aurretik ipintzen dituen.

- Peyrony-ren ustez, garai hau, "Aurignac-Perigord aldiko konplexua" litzateke. Bi adar, beraz, bakoitzak bere bilakabide paraleloarekin.

- Garrod-ek (1938tik) eta Eskola Ingelesak, oraindik ere bereiztuko dute, Perigord aldiaren barruan Behe-Perigord aldia (edo Châtelperron aldia) eta Goi-Perigord aldia (edo Gravette aldia), benetako kulturak bezala. Breuillek, 1959an, teoria hau onartuko du, eta honez gero, nomenklatura mailan gaur egun nahiko zabalduta dago.

Beste ikertzaile batzuk ekin diote gai honi, Delporte, Laplace, Sonnevile-Bordes, Pradel edo Cheynier-ek besteak beste. Euren eritzi guztiak adieraztea luzeegi litzazigukeelakoan, zenbait ekarpen laburtuko dugu gai hau argitzeko.

Laplace-k (LAPLACE, G., 1966) eskema berri bat planteatuko du. Elkarrekin jaioko ziren Aurignac eta Perigord aldiak, "synthetotype" delako batetan. Honen barruan emango

lirateke kultura hauen berezitasun tekniko guztiak. Zenbait karakterizazio-fase pasatu ondoren bereiztuko lirateke Aurignac eta Goi-Perigord aldiko kulturak. Hasierako gorabeheretan kokatuko litzuzke sistematizazio klasikoan deitutako Behe-Perigord eta Proto Aurignac aldiak.

Sonneville-Bordes-ek, Laplace-ek egiten duen moduan, bere teoriak analisi tipologikorako metodo berrietan oinarrituko ditu. Peyrony-ren sailkapena ñabartzen saiatuko da eta Aurignac eta Perigord aldiko mailen artean barnestratifikazioen bidez, Goi-Paleolitoaren hasierako faseentzako garapen kronologiko bakar bat finkatzen. Indusketa berrietatik, hainbat datu estratigrafiko eta tekniko lortuko du:

- Peyrony-ren Perigord aldiko II.fasea (ukiera erdimalkartsuko ijelkitxoak ezaugarri nagusi bezala zituena, bereziki Dufour motakoak) Aurignac aldiarekin erlazionatuko du, teknika aldetik. Bestalde, Aurignac aldiko I. fasearen azpitik kokatzen denez, Aurignac aldia 0 izena proposatuko du.

- Peyrony-ren Perigord aldiko III.fasea, Laugérie-Haute Est-eko indusketan aurreko Perigord aldiko V. fasearen gainetik ikusiko da. Hau dela eta, Sonnevilek fase honentzat Perigord aldia VI deitura proposatuko du. Aztarnategi berberan Aurignac aldiko V. fase eta Solutre aldiaren azpitik Peyrony-k deitutako ProtoMagdalenaldiari (**Protomagdalenien**), Perigord aldia VII izena emango zaio.

- Peyrony-ren Perigord aldiko V. fase barruan, garrantzizko aldakortasuna ikusten du "Polymorphisme" fenomeno batetan. Linea honetan, adibidez, eta bereziki ikertzaile amerikar batzuren partetik, Noailles edo Font-Yves aldi batzuz egin da berba.

- Honez gain, ezaugarri teknikoekin mugatuko ditu (saiatuko da egiten behintzat) aldi guztiak, sailkapen kronologiko bat adieraziz Perigord aldia I (edo Behe-Perigord aldia) / Aurignac aldia 0-I-II-III eta IV / Perigord aldia IV-V-VI eta VII (?) / Aurignac aldia V.

Delporte-ren ikerketek Aurignac aldiko barne-zatiketa berria proposatuko dute, Peyrony-ren sailkapena gainditu nahian. Bestalde, orain dela urte batzuz, 60.eko hamarkadaren amaieran, Peyrony-ren 1946 urteko hariak birbaloratuko dira. Cheynier eta Pradel-ek, bereziki, onartuko dute Perigord aldiko bigarren talde bat izatea, aurreko Perigord aldiko II. fasean oinarriturik. Uko egiten diote, beraz, Sonnevile-Bordes-en Aurignac aldiko 0 fase horri, eta nahiago izango dute izaera tekniko honentzat beste deitura: Corrèze aldia (Pradel) edo Aurignac-Gravette aldia (Cheynier).

Atal honekin amaitzeko, esan behar da azken hamarkadetan ez dela egon aldaketa nabarmenik, sistematizazio nagusien aldetik gutxienez. Indusketa berriek erakarrirako datuak erabili izan dira gai puntual batzuz zehazteko. Gaur egun eta Frantziako Hegomendebalderako (eredu bezala) Goi-Paleolitoaren hasierako bilakaera kultural

bat onartzen da (seguruenez, nolabaiteko zentzu kronologikoduna):

- Erdi-Paleolitotik Goikorako igaraldia, Acheul tradizioko Moustier aldiak (B motakoak) sekulako antza du Châtelperron aldiarekin (Perigord aldia I edo Behe-Perigord aldi izenez ere ezaguna) eta euren arteko aldaketa kualitatibo baino kuantitaboagoa da. Bestalde, indusketa berriek eman dituzten datuen arabera, Châtelperron aldi honen barne, bilakaera bat adierazi nahi izan da.

- Berezko Goi-Paleolitoan jadanik, Aurignac aldiko lehenengo bost fase emango dira (0,I,II,III eta IV), dirudieenez, Perigord aldiko sarkinik gabe.

- Gero onartzen da Goi-Perigord aldiaren garapena, IV eta V faseetan, eta ondoren Perigord VI eta VII deitutakoak (aurreko Perigord aldia III eta Proto Magdalen aldia), nahiz eta zalantza handiak izan oso arraroak bait dira azken hauek.

- Guzti hau eta Solutre aldiko mailen bitartean Aurignac aldiko azken fase bat, Aurignac V edo Azken Aurignac deitutakoa kokatu da zenbait lekutan.

Goi-paleolitoaren hasiera Euskal Herrian

Gaiari buruzko sintesi idazlanak

Lurraldeetako Karta Arkeologikoak ez baditugu kontutan hartzen, lau izan dira gai honi buruzko sintesi nagusienak eta Euskal Herri guztiko

aztarnategiak sartzen dituztenak. Kronologikoki, hauek izan dira:

- BARANDIARAN, J. M. (1953)
- BARANDIARAN, I. (1967)
- BARANDIARAN, I. (1980)
- BARANDIARAN, I. (1988)

J. M. Barandiaran izan zen, 1953an, ordura arte zeuden datuak antolatu zituena, horiekin Euskal Herriko historiaurreari buruzko sintesi bat idazterakoan (Hegoaldean deskribaturik dauden aztarnategi gehienak, beronek industu zituen, gerra hasi aurretik). Liburu honetan Burdin Aro arteko sintesia, gaiari buruzko bibliografia egunekotua eta aztarnategietako bilduma bat sartuko ditu, azken hauen estratigrafiak batzutan soilik zundaturik. Barandiaranek argiro aipatzen du, garai honetakoak bezala datozen aztarnategietako mailak: Venta Laperra, Polvorín, Santimamine, Bolinkoba eta Atxurra Bizkaian; Aitzbitarte, Gipuzkoan; Lezia, Ilbarritz, Nabasia, Saint-Pierre d'Írube eta Anglet, Lapurdin; Isturitz, Nafarroa Beherean; Zuberoan, Etcheberriko-Karbiko irudiak. Lumentxa, Amalda edo Bouben-go adibideetan, ez du zehaztasun kronologikorik emango. Historiografiari dagokionez, J.M. Barandiaranek bere lehen sintesiko kriterioa mantenduko du (*El hombre Primitivo en el País Vasco*, Donostia, 1934) eta "Aurignac aldi" jeneriko batez hitzegingo du.

1967an argitaratuko du I. Barandiaranek (BARANDIARAN, I. 1967), Zaragozan, bere tesia. Hau monogra-

fikoki hezurrezko tresneriaz bazen ere, aitzaki edertzat jotzen da Euskal Herriko Paleolito eta Mesolitoko estratigrafia guztiak berraztertze, funtsezko datu berriak emanez kasu batzutan (adibidez, Isturitzen).

Ondorengo urteetan zehar Altunak (ALTUNA, J., 1972) eta I. Barandiaranek (BARANDIARAN, I., 1973) gai puntual batzu aztertuko dituzte (aztarnategi hauetako fauna eta arte erabilkorra hain zuzen). I. Barandiaranek, berriz ere, 1980an (BARANDIARAN, I., 1980) eta Krakobia-ko "L'Aurignacien et le Gravettien" kongresuan aurkeztutako komunikazioa gazteleratu eta urte berean **MUNIBE** aldizkarian argitaratu zuen. "Auriñaciense y Perigordien en el País Vasco: Estado Actual" delako artikuluan gai honi zegozkion datu berri guztiak egunekotuko dira, bereziki aztarnategien bilduma:

- Bizkaian, Polvorín, Kurtzia, Lumentxa, Atxurra eta Bolinkoba.

- Gipuzkoan, Lezetxiki, Usategi, Amalda eta Aitzbitarte IV.

- Nafarroan, Koskobilu.

- Lapurdin, Saint-Pée, Villefranche, Ahetze, Bidart, Biarriz, Le Basté eta Lezia.

- Nafarroa Beherean, Bidache, Came, Labastide-Villefranche eta Isturitz.

- Zuberoan, Gatzarria.

Artikulu honetan Goi-Paleolitoaren hasierako sailkapen kultural bati buruz dihardu, gure aldameneko eremuetarako onartzen denarekiko moldatuz.

Bere azken lanean (BARAN-DIARAN, I.,1988), aztarnategi eta garai bakoitzean sakontzen badu ere, ez ditu sartzen 1984etik aurrera industu edota argitaratu diren aztarnategiak. Horien artean kontutan izan beharko genituzke Nafarroako Urbanan egindako lanak (bereziki, Mugarduian) eta Gipuzkoako Amalda, Ekain, Aitzbitarte III eta Labeko Kobari buruz egon diren berriak. Bestalde aurrera daiteke liburu honekin betetzen dela urte askotarako Paleolitoari buruzko sintesi orokorraren beharra.

Amaitu baino lehen, aipatu behar dira ikerketa batzu argitaratugabe edo bukatzekotan daudenak, eta Aurignac / Perigord aldiko konplexuaz nola-baiteko ardura dutenak:

- A. Saez de Buruagaren tesia, Gatzarriako Goi-Paleolitoaren hasierako mailak ikertzen dituenak.

- J. Mujikaren tesia, Euskal Herriko Paleolito garaiko aztarnategietako hezurrezko tresneriari buruzkoa.

- X. Esparzaren tesina, Lezetxiki-ko Goi-Paleolitoaren maileri buruz, eta Tx. Ibañezenak, Aitzbitarte IVko tresneriaren azterketarekin.

- Amalda-ri dagokion indusketen txostena.

Oinarri estratigrafikoak. Aztarnategiak

Aurrean dugun bildumaren arabera 30 bat aztarnategitan aipatzen da Euskal Herrian Aurignac edota Perigord aldiko materialen ager-kundea:

- Araban dauden erreferentzia guztiak zalantzarriak dira.

- Nafarroa Beherean, Isturitz, Bidache, Came eta Labastide-Villefranche.

- Bizkaian, Venta Laperra, Polvorín, Kurtzia, Santimamiñe, Lumentxa, Atxurra eta Bolinkoba.

- Gipuzkoan, Lezetxiki, Usategi, Amalda, Aitzbitarte III eta IV, Ekain eta Labeko Koba.

- Lapurdin, Bouen, Saint-Pée, Villefranche, Ahetze, Bidart, Chabiague, Le Basté, Lezia eta Anglet.

- Nafarroan, Koskobilo eta Urbasa (bereziki, Mugarduia).

- Zuberoan, Gatzarria.

Ikusten denez, aztarnategien banaketa geografikoa oso aldakorra da, itsasertzeko lurraldeetan duelarik hedapen zabalena. Nahiz eta horrenbeste erreferentzia izan, kontutan hartu beharko dugu aipamen gehienak begirada kritikoarekin hartzeak direla. Guzti hauen artean aurkituko ditugu maila aberatsak eta bereiztuak (orain interesatzen zaigun

fasea aztertzeko) Isturitz, Gatzarria, Le Basté eta Labeko Koban. Santimamiñe, Bolinkoba, Lezetxiki, Amalda, Aitzbitarte III (kasu honetan, indusketa amaitu gabe dagoenez, aldaketak egon daitezke), Mugarduia eta Chabiague-n maila bakar bat aurkituko dugu, nahiz eta aberatsa izan. Beste aipamen guztiak zalantzazko elementuak dituzte, zehaztuko dugun bezala.

A.- ISTURITZ (Saint Martin d'Arberoue, Nafarroa Beherea)

Isturitz da, zalantzarik gabe, Euskal Herri osoan industu den aztarnategi garrantzitsuena, Europako inportanteenen artean lekutzen delako. Koba handi hau, 1913 eta 1923 bitartean Passemard-ek eta 1928 et 1948 bitartean Saint-Périer-ek, industu zuten. Bibliografian jarri dugu indusketa guztiei dagozkien argitarapen nagusiak.

Isturitzeko indusketaren ulerkuntzarako, arazo orokorrak daude:

- Bi ikertzaile ezberdinek industu zuten, biek kobako Sala bietan eta nomeklatura ezberdin bat erabiliz (San Martingo Sala eta Sala Handia).

- Indusketak nahiko zaharrak ziren, eta badirudi kontserbatu diren materialak aukeratuak izan direla.

- Indusketen txostenak ez dira behar bezain intentsiboak. Horrela, ondorengo egokitze azterketak egin behar izan dira. Hauen artean garrantzitsuenak I. Barandiaran (1967),

H. Delporte (1974) eta R. Arambourou-renak (1976) izan dira. Orokorki hartuta onargarriagoak dira Saint-Périer-en jarraipen estratigrafikoak, Passemard-enak baino.

Isturitz-eko haitzuloan estratigrafia luze bat kokatzen da, Moustier aldiko mailetatik Erromatarkuntzako bate-tara, bitartean Châtelperron, Aurignac, Gravette, Solutre, Magdalen eta Azil aldikoak eta zenbait aztarna eneolitoar daudelarik. Guri interesatuko zaizkigunak Châtelperron, Aurignac eta Gravette aldikoak izango dira. Ikus ditzagun hauen mailak:

- Châtelperron aldiko mailak

Saint-Périer-ek San Martingo Salako S.III mailako oinarrian bereizten du Châtelperron aldiko maila bat. Hamabost edo hogeit zentimetroko lodiera du, eta bere tresnerian, hezurrezkoa oso pobrea bada ere, harrizkoa nabarmengarria da. Maila honetan ikusten dira Moustier aldiko tresna tipikoak, eta hauekin batera Goi-Paleolitoko batzu ere bai (Châtelperron punta batzuk daude).

- Aurignac aldi "tipiko zaharra"

Badirudi Saint-Périer-en S.III mailako zati handienari eta Passemard-en A mailari dagokiela. Delporte-ren ustez Sala Handiko Saint-Périer-en V mailak Passemard-en A mailarekin lotura izango luke. Beren tresneriak, hezurrezkoak zein harrizkoak, oso aberatsak dira. Lanabesen kopuruak oso ongi egokitzen dira Aurignac aldiko hasierarako esan denarekin.

- Aurignac aldi tipiko bilakatua edo bilakatua (**évolué**)

Sala bietan ikusten da: San Martingo Salan, Saint-Périer-en S.II maila eta Passemard-en xy maila litzateke; Sala Handian, Saint-Périer-en ustez, Sala Handiko materialak apur bat zaharragoak ziren, San Martingoak baino. Zehatz-mehatz, San Martingo Salan jaso zirenen artean batzu arruntak dira Gravette aldian (adibidez, Font-Yves puntak).

- Gravette aldia

Sala Handian bakarrik aurkitu zen. Saint-Périer-en IV edo Passemard-en FIII maila litzateke hemen. Hau da estratigrafia guztiko maila aberatsena, eta oso ondo bereizten da bere tresneria beheko mailakoetatik: zulakaitz eta marruxka proportzioak alderantzituko dira eta Aurignac aldiko mailetan marruxkak nagusi baziren, orain zulakaitzek (batez ere Noailles motakoak) osatuko dute guztiaren erdia. Gravette aldiko puntak ere arruntak dira.

Bestalde, maila honetan ikusiko dira arte erabilkorraren hasierako urratsak.

- Azken Gravette aldia

Bakarrik Sala Handian ikusi da, Saint-Périeren IIIc edo Passemard-en C maila izanez. Hasiera batetan Azken Aurignac aldiaren izena eman bazitzaion ere, aurrekoarekin sekulako antza du eta ezin daitezke onartu Aurignac aldiarekiko harremanak.

B.- GATZARRIA
(Suhare, Zuberoa)

Boucher-ek topatu zuen 1950ean aztarnategi hau. Zundaketa batzu egin zituen Gatzarrian 1956 eta 1957 bitartean Laplace-rekin. Azkenik, 1961ean, Laplace bera hasi zen bere indusketa intentsiboarekin. Oso ongi ikusi dira aztarnategi honetan Moustier aldiko amaiera eta Goi-Paleolitoaren hasierako aldi guztiak. Moustier aldiko hiru mailak gaudituz ostean, orain interesatzen zaizkigun mailetara helduko gara. Hauexek dira, behetik gora:

- Maila horia (cj). Honen barruan hiru azpizatiketa bereiztu dira:

*cjn3. Châtelperron aldia

*cjn2. Proto Aurignac aldia

*cjn1. Proto Aurignac aldia

- Maila marroia izotzak apurturiko harri kokkorrekin (cbci). Aurignac aldi tipiko zaharra

- Maila marroia (cb). Aurignac aldi tipiko bilakatua

- Maila marroia, harri kokkorrekin (cbcs). Gravette aldiko itxuradun eta Noailles zulakaitz batzuekin (nahiko pobrea da)

D.- LE BASTE
(Saint-Pierre d'Irube, Lapurdi)

Aztarnategia bera, XIX. mendeko amaieratik ezaguna bazen ere, 1966ra arte ez da industuko. Urte horretan, Chauchat-ek aztertu, eta Moustier alditik Magdalen aldira doazen hainbat

maila lekutuko du. Hauen artean, gehienak, Goi-Paleolitoaren hasiera-koak. Esan behar da pobrezia xamarra dutela maila hauen tresneriak:

- Erdiko 3b maila, itxuraz Châtelperron aldikoa.

- Goiko 3b maila. Châtelperron eta Aurignac aldiko materialen arteko nahasketa.

- 3a maila. Aurignac aldia

- 2a maila. Agian, Aurignac aldikoa.

Saillkapen honen garrantzia ez dator bere aberastasunetik, bere barrietatik baizik, eman zaion ezartze kronologiko-kulturala onartzen badugu.

E.- LABEKO KOB (Arrasate, Gipuzkoa)

Ohizko miaketa batetan, 1973an, aspaldidanik ezagutzen zen haitzulo honetan aztarna paleontologikoak, eta zenbait sukarrizko tresna aurkitu ziren. Arrasateko sahiesbidea egin behar zela eta, 1987 eta 1988 bitartean premiazko indusketa batetan aztertu zen aztarnategia artikulua hau izenpetzen duenaren zuzendaritzapean. Labeko Kobako maila guztiak, Goi-Paleolitoaren hasieran kokatu behar dira:

- I maila. Buztin gorria. Antzua.

- II maila. Buztin horia. Antzua.

- III maila. Buztin horia. Printza batzu.

- IV maila. Buztin horia, ikatz asko eta harriekin. Aurignac aldi tipikoa, seguruenez bilakatua.

- V maila. Buztin horia harri askorekin. Ez da IV maila bezain aberatsa. Aurignac aldia, momentuz zehaztu gabe.

- VI maila. Jalkina troskak gogortuta azaltzen da. Antzua.

- VII maila. Buztin gorria, hainbat harrirekin. Proto Aurignac aldia.

- VIII maila. Buztin horia. Antzua.

- IX maila. Aztarna paleontologikoak (ia bi metroko deposito batetan). Hemengo IXb eta IXd azpimailetan harrizko tresneria aurkitzen dugu, IXd mailakoak Châtelperron aldiko kronologia izateko itxura duelarik.

F.- LEZETXIKI (Arrasate, Gipuzkoa)

J. Jauregik topatu zuen aztarnategi hau, 1927an, eta 1956 eta 1968 bitartean industu zen koba J.M. Barandiaranen zuzendaritzapean. Bederatzi metroko lodiera duen stratigrafia honetan Erdi- eta Goi-Paleolitoaren mailak aurkitu ziren, Brontze-Aroko material batzuekin batera. Kasu honetan aipatu behar dugu Erdi- eta Goi-Paleolito bitarteko mailen ezartze kulturala eztabaidan egon dela. Baina has gaitzen stratigrafia hau azterten:

- IVc maila, Gipuzkoako Karta Arkeologikoaren arabera (eta honek

A. Baldeonen eritzia jarraitzen du), Charentiar motako Moustier aldikoa litzateke.

- IVa maila, kriterio berberarekin, baita Moustier aldi Charentiarra ere.

- IIIa maila (aztarnategi honetan dagoen aberatsena). Aurignac aldikoa.

Argitu behar da IV mailako tresneria nahiko pobrea dela. Laplace, Merino edo Esparzak, beste batzuren artean, sartu dituzte bi maila hauek Goi-Paleolitoaren hasierako lehen aldietan (Proto Aurignac aldia eta Aurignac aldi zaharra). Euren ustetan, eztabaida hau behin betikoz ez amaitzeko arrazoia, tresneriak duen aintzinako itxuran dago. Arkaismo hori IIIa mailan ere ikusiko litzateke. Bestalde Baldeon-en kriterioa tipologikoa da, tresneria orokorki baloratzen bait du.

G.- AMALDA (Aizarna, Gipuzkoa)

1927an aurkitu zuen J.M. Barandiaranek aztarnategi hau, eta J. Altunak industu 1979 eta bitartean. Azken txostena argitaratzekotan dago, eta seguruenez honekin argituko da bere kronologia. Hau bezalako indusketa berrientzat erabiliko dugun informazioa, ARKEOIKUSKA edo ARANZADIANA bezalako aldizkarietatik aterata dago.

Gipuzkoako Karta Arkeologikoan aztarnategi honen sailkapenean aipatzen dira Brontze-Aroko, Solutre, Gravette, Châtel Perron eta Moustier aldiko

materialak. Dugun informazioaren arabera, garrantzi gehien duten mailak, Paleolito barruan, Gravette eta Moustier aldiko mailak dira. Gravette aldian, gutxienez bi azpimaila nagusi ikusi dira: Goi- eta Azken-Perigordaldiak.

H.- BOLINKOBA (Abadiño, Bizkaia)

Beste hainbat bezala, Barandiaranek aurkitu zuen aztarnategi hau ere, 1931ean, eta beronek industu 1932 eta 1933an. Indusketa honen argitarapena irregularra izan zen, bitartean gerra gertatu zelako. Haitzuloan Gravette, Solutre eta Magdalen aldiko materialak eta berriago batzu ere jaso ziren. Gravette aldiari dagokiona, F maila da. Bere karakterizazio teknikoa Lezetxikiko IIIa mailakoa baino garbiagoa azaltzen zaigu, ikertzaile batzuk Aurignac aldiko teknikekin nahastuta dagoela esan duten arren. Beste kasu batzutan (Bizkaiko Karta Arkeologikoan), Barandiaranen nomenklatura zaharra mantentzeak (aurreko Goi-Aurignac aldia berdin Gravette aldia) okerrak sor ditzake.

Bolinkobako adibidean iruzkindu behar da E mailan gertatzen dena, Solutre aldiko material batzurekin Noailles zulakaitz batzu topatu zirelako (nahiz eta horiek Goi-Gravette aldiko lanabes tipokoak izan).

I.- SANTIMAMIÑE (Kortezubi, Bizkaia)

Ustekabez topatu zituzten, 1916an gazte batzuk, Kortezubiko koba

honetako marrazkiak. J.M. Barandiaran, T. de Aranzadi eta E. de Eguren-ek industu zuten 1918 eta 1926 bitartean. Barandiaranek berrartu zuen indusketaren ardura 1960 eta 1962an.

Paleolitoaren barruan, Barandiaranek Aurignac, Solutre eta Magdalen aldiko mailak sartzen ditu. Guri interesatzen zaizkigunak IX eta VIII mailak dira.

- IX maila (edo E), nahiko aberatsa da, baina orokorrean hitzegiten da, asko zehaztu gabe, Châtelperron, Aurignac eta Gravette aldiez. Badirudi material gehienak Aurignac aldikoak direla, baina aurkikuntza batzu Perigord aldi tipikokoak dira.

- VIII maila, 1976an egindako sintesian, J.M.Barandiaranek, zalan-tzekin, Gravette aldikoa bezala aipatzen du.

J.- AITZBITARTE III (Erreterria, Gipuzkoa)

Aitzbitarte IVrekin bezala, 1892an, Lersundiko Konteak topo egin zuen aztarnategi honekin, koba betidanik ezagutzen bazen ere. Egoitza honetako aztarnen kokaerak (sarreratik nahiko urrun) adierazten digu zergatik ez zitzaion, hasiera batetan, garrantzi handirik eman. Altuna hasi da hau industen, 1985etik, orain arte Gravette aldiko maila eder bat jasoz. Honez gain, Solutre aldiko tresna batzu ere aurkitu dira.

Maila honen ezaugarri nagusia, Noaille zulakaitzak dira.

K.- HEGO MUGARDUIA (Urbasa, Nafarroa)

E. Redondok Urbanan topatutako aztarnategien artean, Mugarduia-ko lekua aipa daiteke. I. Barandiaranek industu zuen 1981, 1982 eta 1987an eta iharduera hauen lehenbiziko albistea atera berria da, Nafarroako *Trabajos de Arqueología Navarra* aldizkarian. Honek dioenez, Hego Mugarduian Goi-Paleolitoaren hasierako (agian Gravette aldiko **facies**ekoa) sukurri-lantoki bat legoke. Aztarnategia oso aberatsa suertatu da.

L.- CHABIAGUE I (Biarritz, Lapurdi)

Mende honetan zehar aurkikuntza isolatuak eman dira Chabiague-ko tokian, gutxienez lau aztarnategi ezberdin bereiziz. 1967an, Chauchatek industu zuen egoitza hauetariko bat, Chabiague I deitutakoa, Aurignac alde bilakatuaren barruan koka daitekeena kronologikoki.

M.- BESTE AIPAMENAK

Beste hainbat lekutan aipatu da Aurignac edota Perigord aldiko maila baten presentzia. Baina, banan banan aztertu behar dira arazo zehatzak planteatzen dituztelako. Hiru ataletan sailka genitzake:

**Haitzulo batzutan baditugu datuak Goi-Paleolitoaren hasieran bizitza egon dela bertan baieztatzeko. Koskobilu (Olazti, Nafarroa) eta Lezia (Sare, Lapurdi), sekulako garrantzia bide zuten aztarnategiak

galdu ziren. Heldu zaizkigun tresna batzuren azterketatik susmatu da kasu bietan Gravette aldiko mailak eta agian Aurignac aldikoak ere egon zirela. Bestalde Aitzbitarte IVko (Erreterria, Gipuzkoan) V mailako materialak aztertuz ezin da ziurtatu Aurignac aldiko kronologia dutenik. Amaitzeko Usategin (Ataun, Gipuzkoa) IV mailak ez dauka materialik gauza handirik esateko (Aurignac aldi zaharrekoa dela adierazi da) baina III mailak bai, hezurrezko tresna batek Goi-Perigord aldian lekutzen bait du.

****Beste aztarnategi batzutan,** ezartze kulturala askoz ere eztabaidatsua da. Venta Laperra-ko D eta Polvoringo (Karrantza, Bizkaia) C eta G bitarteko mailak eta Boubengo (Lapurdi) aurkikuntzak (Passemard-en eritziz) erreferentzia zaharregiak dira, eta oso material gutxikoak (Aurignac aldi batez hitzegun da hiruetan). Antz handiko kasu batetan, Ekaingo (Deba, Gipuzkoa) kobazuloko X eta IX mailak Châtelperron eta Aurignac aldikoak bezala baloratu dira, baina oso elementu gutxirekin (hamar bat tresna denera). Lumentxa-ko (Lekeitio, Bizkaia) F edo VII maila eztabaidan dago, material gutxi duelako eta Bolinkobako dokumentazio grafikoarekin nahaste txikiak bait daude. Azkenean, Atxurrako (Berriatua, Bizkaia) D mailan hiru Noailles zulakaitz azaldu ziren, nahiz eta beste ukiera lauko tresna batzurekin egon eta hauek Solutre aldiko tipikoak izan.

****Beste arazo ezberdin bat planteatzen da Bizkaiko Kurtzia, Lapurdiko Saint-Pée, Villefranche,**

Ahetze, Bidart eta Anglet eta Nafarroa Behereko Bidache, Came eta Labastide-Villefranche aztarnategiekin. Aire zabaleko ezarrera hauetan arazo handienak haien mugagaiztasun eta iluntasunetik datoz: tresna gehienak aurkikuntza isolatuak dira, testuingurugabeak. Gainera, material urriak dira eta beraz, zehazgaitzak.

Aztarnategien sakabanaketa eta motak

Aurreko atalean aztarnategiak bere aberastasun edo garrantziaren arabera sailkatu baditugu, kontuan izan behar dugu bere banaketa geografikoa ez dela batere orokorra. Honela, aipamen gehienak Gipuzkoa, Bizkaia eta Lapurdi bitartean daude. Baina geografia eta aztarnategien garrantzia konbinatuz gero, ekialderantz jotzen du garai honen erdiguneak (Isturitz eta Gatzarria garrantzizkoen estratigrafiak, Nafarroa Beherean eta Zuberoan aurkitzen bait ditugu.)

Erizpide biak izan behar dira kontutan, guk dakigunarekin ez zaigulako posible finkatzea ezargunearen bizidura neurtzeko zein den fidagarriena. Aurreko Moustier aldia eta ondorengo Goi-Paleolitoaren bilakaera aztertu eta gero, ondorio batzu aterako ditugu:

- Azken izoztaroarekin batera, oraindik ere Moustier aldian, giza taldeek tokialdatze bat egingo dute Ebro eta Aturri ibaietako goiko harrikadiak baztertuz, itsasertzeko aire zabaleko eta koba edota harpeko ezargunetara joanez.

- Honek argitzen du Gipuzkoa, Bizkaia eta Lapurdin dagoen aztarnategi-multzoa. Bestalde, Iparraldearen gainean, beste eragin bat ikusten da, Piriniotako arlo historiaurrekoan bazter aktiboa delako.

- Joera honek garrantzizko ondorioak dakartza, ehiztari-talde hauentzat, inguruarekin batera fauna eta landaretza aldatzen direlako, eta beren ekonomia aldaketa horren arabera egokitu beharko dutelako.

- Iparraldeko hiru estratigrafia nagusiak eta Lezetxiki eta Amaldako salbuespenak kenduz gero, aipatutako beste aztarnategiak lehenbizikoz okupatzen dira garai honetan. Honez gain, Aurignac edota Perigord aldiko mailak itxi ondoren, normalean (batez ere, zuloetan) leku hauek birrokupatuko dira Goi-Paleolitoan zehar. Bestalde, aztarnategi-zerrenda honetan bereiztu behar dira bizileku tipikoak (haitzulotan daudenak, Isturitz bezala, eta aire zabaleko batzu, Le Basté bezala), aire zabaleko etzauntzak (igaralditan edo ekintza ekonomiko jakin bat betetzeko egoitza prestatua) eta oraindik aipatu gabe genituen labarretako artedunak (garai honetarako, Bizkaiko Venta Laperra eta Zuberoa Etcheberriko-Karbia), nagusiki bizileku bezala erabili ez direnak.

Sistematizazio kronologiko-kulturala. Euskal Perigord eta Aurignac aldiak beren inguruan.

Euskal Perigord eta Aurignac aldiko sistematizazio kronologikoa

finkatzeko funtzesko argibideak Isturitz eta Gatzarrian ditugu. Estratigrafia hauek nahikoa osorik badaude ere, euren alde txarra ere badute, Euskal Herri mailan honelako argitasuna ez delako araua.

Beste aztarnategietan ohizkoa da materialen kronologia finkatzeko arazo handiak izatea (batzutan, nahiz eta aberastasun dexente izan, Lezetxikiko IIIa mailarekin gertatzen den moduan). Atal honetan saiatuko gara ezagutzen ditugun datuekin Euskal Herriko aztarnategi-multzoa kanpoko sailkapenekin harremanetan ipintzen.

A.- CHATELPERRON edo BEHE-PERIGORD aldia

Nagusi da honelako estratigrafi urritasuna Frantziako Dordognen ere. Frantzian, indusketa berri bakarra, aberastasunekin, Grotte du Renne (Arcy-sur-Cure), Roc de Combe (Lot) eta Trou de la Chèvre-koak dira, nahiz eta indusketa zaharretan ere beste batzu azaleratu (Châtelperron, Abri Audi, La Ferrassie, etab.). Iberiar Penintsulan funtsezko aipamen bakarra Cueva Moríngo X mailan dugu. Honekin batera, guregandik hurbil dauden Erdi-Piriniotako Montmaurin edo Le Portel ere aipa daitezke.

Aldi honek tipologikoki antzemateko, arazo tekniko bat dugu, Châtelperron aldiko mailak oso pobreak suertatzen direlako.

Horregatik, "fossil"aren kriterioan oinarrituz ematen zaio normalean izena (Châtelperron aldiko punta

azaltzen denean). Positiboki ezagutu da, estratigrafian, Isturitzeko SIII mailako oinarrian eta Gatzarriako cjn3 eta Le Basté-ko Erdiko 3b mailetan.

Aipa ditzagun, ziurrak ez diren arren, Ekain, Santimamiñe, Venta Laperra edo Labeko Kobako estratigrafien oinarrian daudenak; Lezetxiki edo Amaldan Erdetik Goi-Paleolitorako igaroaldian; Lapurdin lekututako aire zabaleko Villefranque edo Bidarteko aztarnategietan.

B.- PROTO AURIGNAC aldia / AURIGNAC aldi zaharra

Châtelperron aldia eta I Aurignac aldia (edo Aurignac aldi tipikoa) bitartean hainbat lekutan ikusi da Proto Aurignac aldia deitu izan dena (aurreko Peyrony-ren II Perigord aldia). Bere izaera teknikoa ukiera erdimalkartsuko ijelkitxoan eskutik dator, batez ere Dufour motakoaren eskutik, hain zuzen. Estratigrafia tipikoenak (Abri Dufour edo Bos-del-Ser) Corrèze ibaiaren bailaran aurkitu direnez, Proto Aurignac aldia izenez gain, Corrèze aldia proposatu izan da. Kantauri aldean, Moringo 8 eta 9 Pendo-ko VIII mailetan daukagu (azken honetan **Auriñaciense arcaico** deitura hartuko du, eta ez du Dufour ijelkitxorik).

Euskal Herrian hiru tokitan aurkitu da aldi hau, baina Le Basté-ko goiko 3b maila oso pobrea da, eta hemen Châtelperron eta Aurignac aldien bitartean dagoelako sartu da. Gatzarriako cjn2 eta cjn1 eta Labeko

Kobako VII mailetan, berriz, identifikazioak zehatzak dira. Garrantzi berezia du Gatzarriako sailkapenak, aldi honen faunan bi fase ezberdin bereizten bait ditu.

D.- AURIGNAC aldi tipikoa

Bilakaera klasikoan (Dordogne-ko ereduan) Proto Aurignac eta Goi-Perigord aldien bitartean lau aldi ezberdin ikusten badira ere, III eta IV Aurignac aldiak ezezagunak dira eremu honetatik kanpo (ia Laugèrie-Haute, La Ferrassie eta Abri Pataud-etik kanpo).

Honela I eta II Aurignac aldiak geratzen dira, eta euren arteko ezberdintasuna hezur tresneriaren bidez atera behar denez, (eta hau ez da batere erraza) nahiago izan da multzo honi Aurignac aldi tipikoa izena ematea, honen barne bi fase, aintzinekoa eta bilakatua (**évolué**) alegia, bereiziz.

Erizpide zabal honekin ulertuko da zergatik dagoen hain hedatua Aurignac aldi tipiko hau, bai Frantzian eta bai Kantauri aldean. Azken hauen artean, Morín, Pendo, Castillo, Otero, Hornos de la Peña edo Armero-n aurkituko ditugu.

Euskal Herriari dagokionez, Isturitz, Gatzarria, Le Basté, Labeko Koba edo Santimamiñen ondo ezagutzen dira. Lezetxikiko IIIa-maila ere, zalantza handiekin, sar daiteke, beste aipamen zalantzarriekin Aitzbitarte IVeko V, Lumentxa-ko F, Chabiague Ieko VI edo Venta Laperra-

-ko mailak, edo Bizkaiko, Lapurdi edo Nafarroa Behereko aire zabaleko aurkikuntza gehienak bezala.

Gauza ziurrera joz gero, ikus ditzagun aipamen zehatzenak: Aurignac aldi tipiko zaharra aztertzeke, Isturitzeko SIII eta Gatzarriako cbc mailak daude, inguru hoztu batetan (faunaren ikerketarekin ikusi dena). Aurignac aldi tipiko aurreratua edo bilakatua, Isturitzeko SII eta V, Gatzarriako cb, Le Basté-ko 2c(?) eta Labeko Kobako IV eta V(?) mailak. Azken bi kasu hauetan, hezurrezko tresneriaren faltak ez digu uzten hau baieztatzen.

E.- GOI-PERIGORD edo GRAVETTE-aldia

Hau ere oso arrunta da Euskal Herriko eta kanpoko aztarnategietan. Peyrony-ren IV eta V Perigord aldiei dagozkien guztia, eztabaidan dago azken hamarkadetan, oso bilakaera aldakorra bait du. Honela, batzutan ikusten da (Gatzarria edo Isturitzen gertatzen den bezala) Aurignac eta Goi-Perigord aldiaren artean jarraikortasun bat dagoela, nahiz eta ezaugarri nagusiak ondo finkaturik ez izan. Beste adibide batzutan berriz, badirudi nahasmen tipologiko bat dagoela (Lezetxikiko IIIa mailan gertatzen den moduan) eta honela berba egiten da, bereizi gabe, Aurignac, Gravette edo Aurignac-Gravette aldi batez. Bestalde, Goi-Perigord aldiaren (Peyrony-ren V Perigord aldia) gure inguruan ezagutzen den **facies** bakarra Noailles zulakaizduna da. Hau dela eta,

ikertzaile batzuk, Mac Collough edo David hauen artean, Noailles aldia hitz egin dute. Noailles zulakaitzarekin batera, garai hau identifikatzeko beste "fosil"ik ez dago, zoritxarrez, Gravette aldiko punta, hezurrezko azagai bat baizik, Isturitzarra. Gravette aldi hau, Euskal Herrian ikusiko litzateke Isturitzeko IVean, Bolinkobako Fan eta agian Aitzbitarte IIIan eta Amaldan. Azken Gravette aldia, berriz, Isturitzeko III, Gatzarriako cbcs eta Le Basté-ko 2a mailetan. Beste hainbat lekutan erreferentziak zehaztu gabe ditugu, Lezia, Lezetxikiko II Usategi, Kurtzia, Atxurra, Koskobilu edo Lapurdi eta Nafarroa Behereko aire zabaleko aztarnategietan.

Eredu gisa, Iberiar Penintsulako Morín, Pendo, Castillo edo Cueto de la Mina-ko aztarnategietan ikusten dena har daiteke. El Pendo-n gertatzen ez den bezala, Azken Gravette aldia amaitzen denean, ez da ikusten Euskal Herriko stratigrafietan Aurignac aldiko azken fasea. Hurrengo urratsa Solutreko fase bilakatu batetara igarotzean dago (sailkapen klasikoan Erdi-Solutre aldia izango litzatekeena), hori bai, batzutan material gutxi geratzen delarik (Bizkaiko Atxurra edo Bolinkoban gertatzen den bezala). Argi eta garbi dago egoera hau Isturitzeko Erdi-Solutreko materialen artean hainbat Noailles zulakaitz edo Gravette punta ikusten dugunean.

POST SCRIPTUM: Hitzaldi hau 1989ko Uztailean irakurri zenetik aldaketa batzu egon dira, Amaldako aztarnategiaren argitalpena adibidez.

Bibliografía

- ALTUNA, J; "Fauna de mamíferos de los yacimientos Prehistóricos de Guipúzcoa", *Munibe*, 24, 1-464, Donostia, 1972.
- ALTUNA, J. eta MERINO, J. M; *El yacimiento de la cueva de Ekain (Deba, Guipúzcoa)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1984.
- ALTUNA, J. et alii; "Carta Arqueológica de Guipúzcoa", *Munibe*, 34,1-242, Donostia, 1982.
- ARAMBOUROU, R; "Les civilisations du Paléolithique supérieur dans le Sud-Quest (Pyrénées Atlantiques)", *La Préhistoire Française*, I, 1237-1242, Paris, 1976.
- ARRIZABALAGA, A; "Auriñaciense en Guipúzcoa", *Rev. de Arqueología*, 96,62-63, Madril, 1989.
- ARRIZABALAGA, A; *Orain dela 30.000 urte. Labeko Koba. Hace 30.000 años*, Arrasateko Udala, Oñati, 1989.
- BARANDIARAN, I; "El Paleomesolítico del Pirineo Occidental. Bases para una sistematización tipológica del instrumental óseo paleolítico", *Monografías Arqueológicas*, 3,1-433, Zaragoza, 1967.
- BARANDIARAN, I; "Arte mueble del Paleolítico cantábrico", *Monografías Arqueológicas*, 14, 1-369, Zaragoza, 1973.
- BARANDIARAN, I; "Auriñaciense y Perigordiense en el País Vasco: Estado Actual ", *Munibe*, 32,325-333, Donostia, 1980.
- BARANDIARAN, I; "Las Primeras formas de organización del hábitat y el territorio en el País Vasco", *El hábitat en la historia de Euskadi*, 11-29, Bilbo, 1981.
- BARANDIARAN, I; "Actividad arqueológica en Navarra.1986-1987", *Trabajos de Arqueología Navarra*, 7,319-325, Iruñea, 1988.
- BARANDIARAN, I; *Prehistoria: Paleolítico*, Historia General de Euskal Herria, Auñamendi, Donostia, 1988.

- BARANDIARAN, I. eta VALLESPI, E; "Prehistoria de Navarra", *Trabajos de Arqueología Navarra*, 2, 1-241, Iruñea, 1980.
- BARANDIARAN, J.M; "Bolinkoba y otros yacimientos Paleolíticos en la Sierra de Amboto", *Cuadernos de Historia Primitiva*, V, 73-112, Madril, 1950.
- BARANDIARAN, J.M; *El Hombre Prehistórico en el País Vasco*, Ekin, Buenos Aires, 1953.
- BARANDIARAN, J.M; "Excavaciones en Carranza: Bortal, Venta de LaPerra, Polvorín", *Vizcaya*, 10, Bilbo, 1958.
- BARANDIARAN, J.M; "Excavaciones en Vizcaya: Silibranka, Atxurra, Goikolau", *Vizcaya*, 17, Bilbo, 1961.
- BARANDIARAN, J.M; "Excavación de la cueva de Santimamiñe", *Obras Completas IX*, Bilbo, 1978.
- BARANDIARAN, J.M; "Exploración de la cueva de Lezetxiki", *Obras Completas*, XIII, 423-480 eta XIV, 7-131 eta 327-333, Bilbo, 1978.
- BARANDIARAN, J.M; "Excavaciones en Aitzbitarte IV", *Obras Completas*, XV, 7-195, Bilbo, 1978.
- BORDES, F; "La question périgordienne", *La Préhistoire: Problèmes et tendances*, 59-70, Paris, 1968.
- CHAUCHAT, C; *Les industries préhistoriques de la région de Bayonne du Périgordien ancien à l'Asturien*, Tesis Dokt., Bordele, 1968.
- CHAUCHAT, C; "La grotte Lezia à Sare", *Bulletin du Musée Basque de Bayonne*, 61, 155-166, Baiona, 1973.
- CHAUCHAT, C. eta THIBAUT, C; "La station de plein air du Basté à Saint-Pierre d'Irube (Basses Pyrénées)", *Bulletin de la Société Préhistorique Française*, 65, 295-318, Paris, 1968.
- DELPORTE, H; "Le Mousterien d'Isturitz d'après la Collection Passemard" *Zephyrus*, XXV, 17-42, Salamanca, 1974.
- ELKAR LANEAN; *Euskal Herriaren Historiaz II. Historiaurrea*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1985.

- IRIARTE, M.J; *Aportación de la Palinología al conocimiento del paisaje vegetal de Würm en la Cornisa Cantábrica*, Tesina, Gasteiz, 1986.
- LAPLACE, G; "Les Niveaux Castelperronien, Protoaurignacien et Aurignacien de la Grotte Gatzarria à Suhare en Pays Basque" *Quärtar*, 17,117-140, Bonn, 1966.
- LAPLACE, G; Recherches sur l'origine et l'évolution des complexes léptolithiques, *Mélanges d'Archeologie et d'Histoire*, 4, Paris, 1966.
- LAVILLE, H; Climatologie et chronologie du Paléolithique en Périgord, *Etudes Quaternaires*, 4, Marsella, 1975.
- LEROI-GOURHAN, Art., "Análisis Polínico de Cueva Morín", in GONZALEZ ECHEGARAY, J. eta FREEMAN, L.G. 1971,359-365, Santander, 1971.
- MARCOS, J.L; "Carta Arqueológica de Vizcaya. Primera parte: yacimientos en cueva", *Cuadernos de Arqueología de Deusto*, VII, Bilbo, 1982.
- PASSEMARD, E; "Les Stations Paléolithiques du Pays Basque et leurs relations avec les Terrasses d'Alluvions de la Nive", Baiona, 1924.
- PASSEMARD, E; "La Caverne d'Isturitz en Pays Basque", *Préhistoire*, IX, Paris, 1944.
- SAINT-PERIER, R.eta S; " La Grotte d'Isturitz III. Les Solutréens, les Aurignaciens et les Mousteriens", *Institute de Paléontologie Humaine*, 25, Paris, 1952.
- SONNEVILLE-BORDES, D; "L'évolution des industries aurignaciennes", *ERAUL*, Niza, 1980.